

Burbuila hiria



Zer ulertzen dugu hiri gisa? Nola eraikitzen da? Ez al da gizartean bizitzeko toki bat? Termino zabalak landuz, hala nola kolektibitatea eta hiri batek osatzen duen sarea, eta espazio publikoa eta espazio pribatua (etxebizitzak) nola ulertzen ditugun kontuan hartuta, hori islatuko duen Burbuila hiri bat eraikiko dugu. Maketatik eta kontzeptutik errealitatera egingo dugu salto, plastikoa eta bestelako materialekin, eta egitura gisa airea erabiliz.

Helburuak

- Orekari Estudioren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Hirietan ikusten ditugun elementuak aztertzea (hutsik dagoena vs eraikitako espazioa) eta hausnartzea.
- Lan bat planifikatzen ikastea, aldeaz aurretik maketa bat sortuz eta, gero, errealitatera eramanez.
- Bolumen batek espazio bat errotik nola eraldatzen duen hausnartzea.

Aipamenak

Periferia birpentsatu - Etxabakoitz

<https://orekari.coop/portfolio/repensar-la-periferia/>

DOSIS- Pipeline pneumatic structure

<https://dosis.es/pipeline>

Plastique fantastique - Loud shadows

<https://plastique-fantastique.de/LOUD-SHADOWS>

Bellastock - La ville en un souffle

<https://www.bellastock.com/projets/la-ville-en-un-souffle>

M-etxea - Har-etxea

<https://m-etxea.com/proiektuak/har-etxea/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Orekari Estudioren obrara eta prozesuetara hurbilduko gara. Eta galdera hauek botako ditugu:

- Zer motatako prozesuak sortzen dituzte haien proiektuetan?
- Zer baliabide erabiltzen dituzte haiek burutzeko?
- Zein dira proiektu bakoitzean jarraitu beharreko urratsak?
- Nola hasten dute proiektu bat? Zer erabiltzen dute diseinatuzko? (planoak, maketak, erreferentziak...)

2. Bizi garen hirian edo herrian pentsatuko dugu. Zerk egiten du toki hori hiri/herri? Eraikinek eta espazio publikoak.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

Hiri bat edo herri bat eraikiko dugu.

Izena? Kokapena? Nolakoa izango da? Hiri planifikatu ahal izateko, proiektatu eta pentsatu egin behar dugu lehenengo. Horretarako, planoak eta maketak egingo ditugu, gero errealitatera eta ekintzara pasatzeko.

1. Fasea. Proiektua.

- Gutako bakoitzaren ustez bizitzeko hiri edo herri paregabea diseinatuko dugu: planoak egin, 3D marrazkiak...
- 10 laguneko taldeetan, hiriaren maketa erraldoi bat eraikiko dugu. Alde batetik, eraikinak beharko ditugu, kartoi mehez egindako poliedroak edo forma sinpleak. Gero, hirian kokatu, eta loturak sortuko ditugu. Binaka, 2 poliedro-eraikin eraikiko ditugu.

* Eraikinek bolumen ITXIAK izan behar dute, gero barruan airea izango dutelako. r.

2. Fasea. Eraikitzea.

- Maketa prest dugunean, errealitatera ekarri beharko dugu. Sor dezagun gure burbuila

hiria!

- Lehenik eta behin, erdiguneko espazio zabal eta garbia aukeratuko dugu, eta bertan eraikiko dugu.
- Pintore-plastikoarekin, eta hiruzpalau pertsonako taldeetan, talde bakoitzak poliedro bana eraikiko du: 1:1 eskalan egindako eraikina.
 - Burbuila hiria eraikiko dugun espazioaren arabera aukeratu beharko dugu eskala. Gehieneko altueratik abiatu behar gara.
- Burbuila hiriko "eraikin" guztiak egin ondoren, puztu egingo ditugu, bakoitzaren efektua ikusteko eta sortu dugun babeslekuan dugun sentsazioaz gozatzeko.
 - Aire-haizagailuen bidez puztuko ditugu
- Eraikinak prest daude; kaleak falta zaizkigu. "Eraikin" bakoitza nahi dugun lekuan jarriko dugu, eta bata bestearen arteko loturak egingo ditugu. Lotura horiek tunelak izango dira, bolumenak euren artean lotuko dituztenak.
- 3.** Fasea. Burbuila hirian bizitzea.
 - Hiri eraikitzeaz gain, bertan biziko gara. Sortutako hiriaz gozatuko dugu, eta jendea gonbidatuko dugu Burbuila hirian egotea bizi dezan.

Ondorioak eta lerro irekiak

- 1.** Arkitektura hori erraz muntatu eta desmuntatzen da. Zer da arkitektura iragankorra?
- 2.** Beste material batzuk erabili ahal ditugu eraikitzeke eta gero desmuntatzeko? Zer material bururatzen zaizkizue? (kartoia, esne-kutxak adreiluen gisan, makilekin egindako egiturak oihalez estalita...)
- 3.** Eta Kartoi hiria sortzen badugu?